



Laborategi Ikastolak

Ikastolen Hezkuntza Marko Orokorra gaurdanik esperimentatzen ari diren tailer biziak

Ikastolen Hezkuntza Marko Orokorra ez da dokumentu teoriko hutsa. Euskal Herriko ikastola batzuek bide horretan urrats esanguratsuak egin dituzte marko hori ikasgelan eta komunitate osoan lurreratzeko. Haiei deitzen diegu Laborategi Ikastolak: marko teorikoaren atzean dagoen filosofia esperimentatzen, fintzen eta sare osoarekin partekatzen ari diren hezkuntza laborategi biziak.



Ikastolen Hezkuntza Marko Orokorra ez da dokumentu teoriko hutsa. Euskal Herriko ikastola batzuek bide horretan urrats esanguratsuak egin dituzte marko hori ikasgelan eta komunitate osoan lurreratzeko. Haiei deitzen diegu Laborategi Ikastolak: marko teorikoaren atzean dagoen filosofia esperimendatzeko, fintzen eta sare osoarekin partekatzen ari diren hezkuntza laborategi biziak.

Laborategi Ikastolak ulertzeko, ezinbestekoa da Ikastolen Hezkuntza Marko Orokorren testuinguruan kokatzea. Marko horrek hezkuntza paradigma berri bat proposatzen du: Pertsona Ereduan oinarritutako ikaskuntza eredu, printzipio psikopedagogiko argiak eta ebaluazio hezigarria uztartzen dituen ikuspegi integrala. Testuinguru horretan jaio da Laborategi Ikastolen figura: eredu hori eguneroko jardunera eramaten aitzindari izateagatik izendatu diren ikastolak, bidean pilatutako jakintza eta esperientzia sare osoaren zerbitzura jarri nahi dutenak.

Ikastola horietan, ikas-eredu berria ez da proiektu isolatu bat, baizik eta eraldaketa integrala: kontakizun partekatu bat eta komunitatearen babesa lortu dituzte, Pertsona Ereduari eta hezkuntza ildoari erantzuten dieten ikaskuntza esperientziak diseinatu eta material propioekin hornitu dituzte, eta formazio sakonak egin dituzte irakasle, ikasle eta familien artean. Aldi berean, ikaskuntzarako espazio fisikoak ere eraldatu dituzte, eredu modu koherentean bizi ahal izateko.

Ikastola hauek ez dira zerrenda itxi bat, baizik eta ezaugarri multzo bat betetzen duten eta etengabe irekita dauden praktika komunitateak.

Ekarpen estrategikoa egiten ari dira Ikastolen Elkarteen eta gainerako ikastolen mesedetan. Laborategi Ikastoletan garatutako prototipo, aste-eredu, ikasmaterial eta ebaluazio prozesuetatik asko dago ikasteko; hortik elikatzen da Ikastolen Elkartek martxan duen aholkularitza zerbitzua, eta hortik abiatuta diseinatzen ari dira eraldaketa prozesuetan sartuko diren ikastolentzat gutxienezko bermeak dituen bide orria.

Laborategi ikastola batzuetako zuzendariekin mintzatu gara, euren jardunari buruz gehiago sakontzeko. Hauek dira aukeratu ditugun ikastolak: Anoetako Herri Ikastola, Arizmendi Ikastola, Axular Ikastola, Laskorain Ikastola, Orioko Herri Ikastola eta Txantxiku Ikastola.



Pertsona Eredua: zergatik eta zertarako?

Laborategi Ikastoletan azpimarratu dute eraldaketa pedagogikoaren beharra ez zela modaren ondorio izan; pandemiak baino lehenagotik zetorren “deserosotasun sakon” bat hezkuntza eredu tradizionalarekin. “Turismo pedagogikoa” egin zuten, beraz, beste esperientzia berritzaile batzuk ezagutzeko, hala nola Kataluniako jesuiten eskolako Horitzó+ proiektua.

Baina Reimagine Education Lab taldearekin topo eginda, galdera erabakigarria jaso zuten: “Proiektu bidez lan egitea, bai... baina zertarako?”. Ez zen soilik “nola” aldatu; lehenik “zergatik” eta “zertarako” definitu behar zen. Hortik abiatu zen gaur egungo Pertsona Eredua definitzeko bidea. Ondoren etorri zen mugari bat: Ikastolen Elkartarekin batera Pertsona Eredua bateratua adostu zuten, ikastola guztiek partekatuko zuten oinarri komuna finkatuz. Horrek koherentzia ekarri zuen bai material ekoizpenean bai pertsona ereduaren neurketan: tresna komun baterako bidea zabaldu zen.

Bigarren mugarria, Pertsona Eredua definitu ondoren etorri zen: Ikastolen Hezkuntza Marko Orokorra.

Eraldaketa nola gauzatu erabakitzerakoan, bi bide aztertu zituzten: etapa guztietan pixkanaka aldaketak txertatzea, edo etapa bat erabat eraldatu eta han prototipatzea



eredua. Batzuek bigarren aukeraren alde egin zuten: etapa jakin bat hautatu, ikaskuntza-eredu berria han probatu, ebaluatu eta balidatu, eta ondoren gainerako etapetara zabaltzen joan. Badira LH eta DBHn ezarri dutenak ere.

Pandemian ere ez zuten eraldaketa gelditu; konfinamenduan jarraitu zuten materialak eta egiturak lantzen. Egoerak berretsi zien norabidea: ikasleen ongizatea, autonomia eta barne sendotasuna lehen leerroan jartzea ezinbestekoa zela.

Ikaslea protagonista

Ikasgelan gertatzen den aldaketa nagusia oso modu sinplean labur daiteke: ikasleak hartzen duen protagonismoan eta rolean datza. Irakaskuntza eredu tradizionaletan, irakaslearen lana edukia “ematea” zen, eta azterketaren bidez egiaztatzea ikasleak barneratu duen ala ez; irakaslearen papera, hein handi batean, zertifikatzailea zen.

Gaur egun, Laborategi Ikastoletan, irakaslea bidelaguna da: ikasle bakoitzaren egoeraren diagnosis egiten du, non dagoen ikusten du, eta hortik aurrera ibilbide pertsonalizatua irudikatzen du berarekin batera. Galdera ez da soilik “badaki edo ez



daki?”, baizik eta “non dago orain?” eta “zer ibilbide egin behar dugu hemendik aurrera garatzen laguntzeko?”.

Horrek begirada osoa aldatzen du. Edukiak eta konpetentziak lantzen eta garatzen jarraituko dugu baina Pertsona ereduaren zerbitzura daude, hau da, helburu sakonagoetara heltzeko bitartekoak dira.

Aste eredua: esperientzien sare koherentea

Pertsona Eredua paperean geratu ez dadin, Laborategi Ikastoletan aste eredua errotik berrantolatu dute. Ikasgai zehatzek, isolatuta, leku gutxiago dute ordutegian; horien

ordez, *ikaste-esperientziak* ageri dira: PROI (proiektuak), GPS (Garapen Pertsonaleko Saioak), SAKON saioak, BIDEAN tutoretza pertsonalizatua, eta abar.

PROlek, Proiektu bidezko ikaste esperientziek, ordu lektiboen parte esanguratsua hartzen dute, Diziplina arteko logikan pentsatuta daude, hizkuntzak, gizarte zientziak, natur zientziak edo arlo artistikoak gurutzatuz.

GPS, Garapen Pertsonaleko Saioak, dira beste zutabe bat: ordutegian txertatutako tarte sistematikoak, astez aste errepikatzen direnak, ikasleen ongizate emozionalean eta autoezagutzan eragiteko. Ikasleek emozioak identifikatu eta kudeatzeko tresnak ikasten dituzte, eta euren buruarekin ondo egoten.

Hizkuntzak eta matematikak ere modu desberdinean antolatzen dira. SAKON ikaste esperientzietan, konpetentzia akademikoak lantzen dira baina aplikazio eta lotura praktikoetara begira: hizkuntzak proiektuetan erabiltzen dira, hizkuntzen arteko zubiak eraikiz, eta matematika erronka errealetan txertatzen da.

BIDEAN, tutoretza pertsonalizaturako ikaste esperientziarekin, astean tarte berezia gordetzen da ikasle eta tutorearen arteko elkarriketarako: ez bakarrik prozesu edo garapen akademikoaz hausnartzeko, baizik eta Pertsona Ereduarekiko bere garapenez jarduteko, edota nola sentitzen den, nola doan lagunekin, zer bizi duen ikastolatik kanpo, zer amets edo kezka dituen...

Espazio irekiak eta irakaskidetza

Eredu pedagogikoa aldatzeak espazio fisikoak ere birpentsatzea ekarri du. Laborategi Ikastoletan, espazioa "ikaskuntza ereduaren zerbitzura" dago: gela estankoen logikatik espazio ireki eta malguetara igaro dira, eta mobiliarioa ere mugikorra eta arina da.

Espazio berriek ahalbidetu dute irakaskidetza ere: irakasle bat baino gehiago aldi berean, maila bereko talde desberdinekin, proiektu edo esperientzia berean lanean. Horrek ikasleak artatzeko aukerak handitzeaz gain, irakasleen artean lankidetza eta konfiantza giroa sortzen du: denon lana ikusgai dago, eta "nire gela, nire atea" logikatik harago egiten da salto.



Ebaluazio hezigarria: bidearen hasiera eta jarraipena

Eredu aldaketaren erdigunean dago **ebaluazioa**. Laborategi Ikastoletan argi dute: “Ebaluazioa aldatzen ez badugu, gainerako guztia nekez aldatuko da”. Ebaluazio hezigarria da ikaslearen gogoeta, **autorregulazioa** eta bere ikaskuntza prozesuaren protagonismoa sustatu nahi duen eredu. Ikasleak momentu oro jakin behar du zertan dabilen, zer egiten duen ondo, non daukan hobeto egiteko aukera eta zer pauso eman behar dituen hurrengoan.

Horretarako, ebaluazioa eta kalifikazioa bereizi egin behar izan dituzte. Tradizioz, ebaluazioa bidearen bukaerako epai gisa ulertu izan da; ebaluazio hezigarriak, aldiz, bidea bera jartzen du erdian: helburuak argi, geldialdiak, feedback uneak eta hausnarketa tarteak.

Helburuen logika ere aldatu da: ebaluatzen dena ez da ikasgai baten edukia edo garapen kompetentziala, baizik eta helburu multzo bat – Pertsona Ereduaren ezaugarriekin eta kompetentzien garapenarekin lotutako helburuak–.

Ebaluazio motak askotarikoak dira: autoebaluazioa (ikasleek euren burua ebaluatzen dute), koebaluazioa (ikasleen artekoa) eta irakaslearen ebaluazioa, beti elkarrizketa eta adostasunaren logikan. Familiak ere parte hartzen dute proiektu batzuetan, seme-alabak nola ikusten dituzten azalduz.

Ikastola bera ere ebaluazio jarraituan dago. Reimaginean aholkularitzarekin egindako lehen prozesu-ebaluazioek eta Mondragon Unibertsitatearekin garatu dituzten azterketek erakutsi dute asebetetze maila altua dagoela familien eta irakasleen artean, eta hobekuntza eremuak ondo identifikatuta daudela.

Bide partekatua

Eraldaketa sakonik ez da egiten bakarrik. Klaustroa izan da prozesuaren protagonista nagusietako bat: irakasleek hasieratik parte hartu dute Pertsona Ereduaren definizioan, ikaskuntza-ereduaren diseinuan eta erabakietan. Materialak sortzen aritu diren irakasle horiek berak dira gero ikasgelan martxan jartzen dituztenak eta besteei laguntzen dietenak.

Familiak ere inplikatu dira hasieratik. Gardentasunez azaldu zaie zertan datzan eraldaketa, nolako ametsa partekatzen den seme-alaben Pertsona Ereduari buruz, eta zein pauso emango diren.

Laborategi Ikastolak ez dira euren burua mirestera itxitako zentro bereziak. Egindako bidea sare osoaren zerbitzura jarri nahi dute, bisita pedagogikoen, prestakuntza saioen eta Ikastolen Elkartarekin egindako aholkularitza-lanen bidez. Funtsean, galdera bera berriro planteatzen diote ikastolen mugimenduari: zer hezkuntza eredu behar dugu gure seme-alabak pertsona aske, sendo eta zoriontsu bihurtzeko, euskaraz eta mundu zabaleko herritar gisa?